



1. UNITATEA.- ENPRESA ETA INGURUNEA

- 1.1. Enpresak ekonomia-unitate gisa
- 1.2. Enpresaren funtzioa ekonomian
- 1.3. Enpresa eta enpresario motak
- 1.4. Enpresaren funtzionamendu ekonomikoa
- 1.5. Enpresaren partaideak
- 1.6. Enpresaren helburuak
- 1.7. Enpresa eta merkatua
- 1.8. Ariketak

1.1. ENPRESAK EKONOMIA-UNITATE GISA

Enpresa kontzeptua ez da berria. Erdi arotik gaur egun arte indarrean egon da, baina, nahiz eta bere garaian zeukan helburu bera izan, enpresa kontzeptua garatu egin da urteen poderioz.

Pertsonak ondasun eta zerbitzu behar ezberdinak dituzte, behar hauek bizi den lekuaren, maila sozialaren, baliabide ekonomikoaren eta beste hainbat arabera ezberdinak izaten dira pertsona bakoitzarentzat.

Dena dela, baldintza desberdinak dituzten pertsonak hitz egin dugun arren, pertsona horiek dituzten betebeharrak mugagabeak izan ohi direla. Honetaz gain, behar hauek asetzeko baliabideak gehienetan mugatuak eta eskasak izaten dira.

Hori dela eta, erabakiak hartzeko orduan ekonomia sistemak hiru arazoei egin behar dio aurre:

1. **Zer eta zenbat** ondasun ekoiztu?
2. **Nola** ekoiztu?
3. **Nori** ekoiztu?

Galdera hauei erantzuna emateko, herrialde bakoitzak bere produkzio faktoreak ditu:

1. **Lana:** Gizakion eskulan fisikoa eta ezagutzak.
2. **Lurra:** Errekurtso naturalak, hau da: lurra, itsasoak, erregaiak...etab.
3. **Kapitala:** Ekoizteko ditugun baliabideak: eraikuntzak, makineriak, tresneria...etab.

Pertsonen beharrak asetzeko eta gizarteak dituen baliabideak erabiliz, gizartea hiru ekonomi agenteetan antolatzen da:

1. **Familiak:** bi betebeharrak ditu, alde batetik produktuak kontsumitu eta bestaldetik bere eskulana eskaini.
2. **Enpresak:** Zer et nola ekoiztu galderei erantzuna ematen dute.
3. **Estatua:** Ekonomi arloaren legedia ezartzen du eta gizarteari zenbait zerbitzu publikoak eskaintzen dio. (Ospitaleak, errepideak, irakaskuntza...etab)

Honek bi merkatu mota desberdinetan antolatzen dira:

Produktu merkatua: Familiak enpresak eskaintako ondasun eta zerbitzuak erosten dute.

Faktore merkatua: Enpresak langileak eskatzen dute eta familiak bere eskulana eskaintzen dute.



1.2. ENPRESAREN FUNTZIOA EKONOMIAN

Enpresa produkzio unitate basiko bat da, ondasunak sortzea edo bere erabilgarritasuna gehitzea du helburu bezala, horretarako enpresario batek koordinatuta produkzio faktore batzuk erabiltzen ditu.

1. **Enpresak produkzio faktoreak koordinatzen ditu:** Ekonomian dauden errekurtsu urrien erabilpen egokien bila du abiapuntu eta horretarako lanaren banatzea eta espezializatzea hartu da helburu bezala. Honek duen abantaila nagusia produktibitatearen hobekuntza da.

2. **Produktuen baliagarritasuna gehitzen du,** hau da, lehengaiak produktu amaituetan eraldatzearekin batera gizakion nahiak asetzea lortzen du. Enpresak produktuei erabilgarritasun gehiago sortu ahala, bere balioa merkatuan handitzen du. Balore totala eta kostu totalaren arteko diferentziaren arteko desberdintasuna marjina deritza eta zenbat eta handiagoa, orduan eta errentagarriagoa izango da.

3. **Enpresak arriskuak onartzen dituzte:** Produktuak merkatuan saldu baino lehen, enpresak alde aurretik errenta batzuk ordaindu behar ditu:

- Langileen soldatak.
- Bankuko maileguen interesak.
- Hornitzaileen fakturak.

4. **Enpresek aberastasuna eta enplegua sortzen dute.**

1.3. ENPRESA ETA ENPRESARIO MOTAK

1. **Enpresario klasikoa:** enpresa barruan dirua jartzen zuena (jabea) eta irabaziak bere ordainsaritzat onartu zen. (Adam Smith, David Ricardo eta John Stuart Mill) enpresarioa enpresaren jabea zen

XIX. mendearen erdialdean hasi zen desberdintzen enpresarioen eta kapitalistaren artean. 1890.ean Marshall izan zen desberdintasun hau egiten hasi zen lehenengoko bat, honek esaten zuen enpresarioak produkzio prozesua koordinatu egiten zuena zela.

2. **Enpresario-arriskua (Knight):** Knightenustez, enpresaburuaren ezaugarri nagusia errentak ziurtatzea da. Horrek behar den dirua jartzen du; produkzio-faktoreak eskuratzen ditu, eta produkzio-jardueratik lortutako ondasuna edo zerbitzua merkatuan ondo onartua ez izatearen arriskua bereganatzen du. Haren etekina zalantzarik da, beraz. Pentsamolde horren arabera, enpresa-jarduerak duen berezko arriskua bere gain hartzea da enpresaburuaren bereizten duen funtzioa. Hala, arrisku hori ez balego, enpresaburuak ez litzateke enpresaburu izango.

3. **Enpresario-berritzailea (Schumpeter):** Schumpeter-en Enpresaburu Berritzailearen Teoria. Berrikuntzak egitea ezaugarritzen du enpresaburuak. Enpresaburuak berrikuntzak barneratzen ditu

BTX 2 – Enpresa _____ 1. unitatea: Enpresa eta ingurunea _____

enpresan, eta, ekonomia-jardueran, posibilitate eta konbinazio berriak identifikatzen eta burutzen ditu. Enpresaburua da, beraz, ekonomia-aurrerakuntzaren bultzatzaile nagusia. Schumpeteren iritziz, ekonomia-sistemak orekarako joera du. Egoera horretan ez dago aparteko mozkinik: enpresaburua ren mozkina “ohiko mozkinera” edo “zuzendaritzaren soldatara” mugatzen da. Oreka-egoera enpresaburuak produkzio-konbinazio berri bat burutzen duenean apurtzen da. Berrikuntza horren ustiapenak aldi bateko monopolio-egoeran jartzen du enpresa eta aparteko mozkinak lortzeko aukera sortzen zaio. Enpresaburu berriztatzaile horri (benetako enpresaburua Schumpeteren arabera) beste enpresaburu imitatzailleek jarraitzen diote; lehia berriro sorrarazten da, eta aparteko mozkinak ezabatu egiten dira. Ziklo hori etengabe errepikatzen da.

4. Enpresarioa teknoestruturaz bezala (Galbraith): Gaur egungo enpresak oso handiak eta konplexuak dira eta askotan pertsona bakar baten kontrolpean ez dago eta pertsona askoren parte-hartzea nahita ezkoa da (ekonomistak, injenieroak, abokatuak... etab), hauek gehienetan ez dira enpresaren jabeak, baizik eta honek kontratatutako direktiboak.

Orain enpresarioa ez da enpresaren nagusia pertsona talde bat baizik eta askotan honek dakarren arazo nagusia helburu zabal batzuk dituztela, baina enpresaren jabeak (akzionistak) irabaziak lortzearen helburu bakarra dute .

5. Enpresarioa-aukerak (Kizner): Ekonomia aztertzen duena topatu ez den aukera berri baten atzean dagoena da.

6. Enpresario -liderra. XX-XXI mendekoa (W.G. Bennis): Gaur egun, enpresaburuak helburuak beteko ditu, berritzailea izango da eta lider eta estrategia ona ere izan behar du. Liderra arlo guztietan izan behar da, eta batez ere, enpresa baten jarduteko behar diren gaitasun pertsonalak eduki behar ditu.

**** ENPRESABURUAREN FUNTZIOAK:**

- Ekintza plan bat egitea: merkatu azterketa, kontsumitzaileen nahiak, kompetentzia, helburuak zehaztu...
- Kudeatzea: enpresa osatzen duten elementuak bideratu.
- Antolatzea eta koodinatzea: elementuak ahalik eta eraginkorragoak lortu, landu.
- Kontrolatzea: behar izanez gero, zuzenketak egin eta beti ere, hobetu.

1.4. ENPRESAREN FUNTZIONAMENDU EKONOMIKOA

Enpresa bat sortzerakoan, behar den lehenengo gauza gizarteak behar duen zer edo zer sortzea eta merkatuak asetzen ez duena. Horretarako lehenengo enpresak lehengaiak erosi behar dituzte, langileak kontratatu eta makineria erosi, hau da, hainbat kostuei aurre egin behar die.


Kostu honen gehikuntza, enpresaren produkzio kostua deritzo.

Ekoi-tutako produktuak saltzerakoan diru-sarrerak lortzen ditu eta kostuen eta diru-sarreraren arteko diferentziari, enpresaren irabazia da.

Irabazia = Salmenten diru-sarrerak – produkzio kostua

HELDUTASUN ZIKLOA

Lehengaiak erosi, transformatu, saldu eta kobratu bitarteko epea da. Eginkizunaren baitan oso ezberdina izan ohi da: Eraikin enpresa batek ziklo luzea du eta merkatal enpresa batek, aldiz, motza. Horregatik finantza beharrak oso ezberdinak izaten dira. Faktoreak: Heldutasun zikloa, stoka, bezeroei emandako maileguak, hornitzaileek ordaintzeko utzi duen epea...



ENPRESAREN FUNTZIO AREAK

- Ekoizpen area: lehengai eta ekoizpenen hornikuntza kontrolatzen du.
- Giza baliabideen area: langileak antolatu eta kudeatzen ditu.
- Finantzazio eta inbertsio area: Beharrezko fondoak lortzeaz gain, inbertsio politika antolatzen du.
- Merkataritza area: Produktuak merkaturatu eta banatzen ditu.
- Oharra: banaketa hau industria enpresa bati dagokio! Merkataritza enpresa batean ez litzateke ekoizpen arearik egongo, ez baitituzte produktuak eraldatzen...

1.5. ENPRESAREN ELEMENTUAK

Giza-taldea (fisiko eta juridiko - sozietateak ere bai): Langileak, jabeak edo akzionistak, enpresaren direktiboak. Honetaz aparte beste talde batzuk egongo liriteke: erosleak, bezeroak, hornitzaileak...etab.

Enpresaren ondarea: Alde batetik aktibo finkoak (enpresa barruan epe luzerak egongo direnak) haien artean, makineria, eraikuntzak, altzariak...etab eta beste aldetik, aktibo korrontea, epe laburrerako egongo direnak, lehengaiak, izakinak, altxortegiko dirua...etab.

Enpresaren antolaketa: Enpresa batek ganorazko antolaketa bat behar du bere helburuak aurrera eramateko, hau da, nola banandu lana, nor zer egin behar duen argi adierazi.

Enpresaren ingurunea: Enpresaren igurune politikoa, kulturala, soziala, ekonomikoa eta teknologikoa kontutan hartu behar da, hauek eragin zuzena baitute enpresaren gainean.

Dena dela azken urteotan **ingurunea** indar handia hartu du eta enpresaren jarduera baldintzatzen duten faktoreak hauek dira: gobernu-araudia, bezeroak, hornitzaileak...

Enpresa-unitatea edo enpresa **sistema ekonomikoaren** barruan dagoela kontsideratzen dugu. Beraz, enpresa ez da sistemaren azpiegituretik eta egituretik kanpo dagoen erakunde independente bat. Argi dago, enpresa sistema ekonomiko zabalago baten barruan dagoela, horregatik, enpresa sartuta dagoen ekonomia- egiturengandik baldintzatuta dago. Horretaz gain, ekoizpen faktoreek eta beste kanpo elementu batzuk baldintzatzen dute. Sistema irekia da, bertan enpresa ingurune orokorra eta berariazko ingurunearekin harremanetan dago.

Beraz, enpresa honela banatu dezakegun ingurunearen barruan dagoen sistema bat da:

Ingurune orokorra: Enpresa guztiengan du eragina orokorrean. Ingurune honetan eragin zuzena duten hainbat alderdi daude: kulturalak, teknologikoak, politikoak, legalak, demografikoak, soziologikoak, ekonomikoak eta abar.

Berariazko ingurunea: Ingurune onek enpresa bakoitzarengan du eragina eta ondorioz, enpresa-motaren arabera alda daiteke. Esate baterako, industria enpresa batean, honako alderdiek izan dezake eragina: hornitzaileak, bezeroak, lehiakideak, Gobernuak sektorearengan duen kontrolak, sindikatuak eta abar.

- Bezeroak: enpresak zenbat eta bezero kopurua handiagoa izan, horiek duten negoziatzeko boterea eta independentzia orduan eta handiagoak izango dira; izan ere, bezero batek huts egin arren, badaude gehiago enpresaren jarduera mantentzeko.
- Hornitzaileak: zenbat eta hornitzaile kopurua handiagoa izan, aurreko kasuan bezala, enpresaren negoziatzeko boterea orduan eta handiagoa izango da. Enpresak hornitzaile bakar bat balu, enpresak horren baldintzak onartu behar lituzke eta, noski, baldintza okerragoak lirateke.

1.6 ENPRESAREN HELBURUAK

- **Orokorrak:** epe luzera lortu nahi direnak (errentagarritasuna, hazkundera...)
- **Berezko helburuak:** epe laburrera eta sail bakoitzak lortu nahi dituenak. Beharrezkoak dira helburu orokorrak lortzeko.
- **Azpi helburuak:** helburu zehatzak, ekintzak... beharrezkoak direnak beste helburu guztiak lortzeko.

**** Helburuen arteko gatazka.** enpresaren giza taldeak interes ezberdinak dauzka eta orduan, euren artean gatazkak sortzen dira.

Enpresa baten helburua bere unitate ekonomiko bat izateko misioa da, epe luzera lortu nahi dituen jomugak adierazten ditu. Esate baterako, autoak egiten dituen enpresa baten egitekoa herritarrei garraio pribatuaz hornitzea da.

Berariazko helburuak dira enpresak denbora epe zehatz batean lortu nahi dituenak, hau da, ingurune bat aztertu eta gero ezartzen diren jomugak dira. Bere oinarrizko helburua izaten da ingurunea errespetatzearekin eta kontserbatzearekin batera onurak maximizatzea kostuak minimizatzen dituen bitartean.

Balore hori sortzeko enpresak izan duen balio totalaren eta kostu totalaren arteko marjina edo diferentzia, marjina honi esker zein jarduera den errentagarria eta zein ez ikus dezake, honela, egunen batean

jardueraren bat errentagarria ez bada honek kanpoko enpresa bati azpikontratatzea azter dezake (*outsourcing*).

Helburuak enpresak bere buruari ezartzen dizkion eginkizunak dira xedea lortu ahal izateko. Honako hauek dira **enpresaren helburu orokorrak**:

a) Hazkundera, bai barnekoa eta bai kanpoko.

- Barnekoa: enpresak bere jardueraren bidez lortutako hazkundera da; inbertsio berriak eginez, produktu berriak merkaturatuz edo merkatu berrietara zuzenduz lortzen dena.

- Kanpoko: enpresak eskuratuz eta kontrolatuz lortutako hazkundera da; hau da, fusioen eta bereganatzeen bidez lortutakoa.

b) Errentagarritasuna

Inbertitu den kapitalari ahalik eta etekin handiena atera, eta horretarako, kostuak txikitu eta inbertsio egokienak zein diren aztertu beharko du.

Errentagarritasuna = Mozkina / inbertitutako dirua

c) Segurtasuna

Enpresaren biziraupena lortzean datza. Enpresak ezartzen dituen helburuek ondo definituta egon behar dute eta, horretarako, beharrezkoa da elementu guztiak ahalik eta hobetoen kudeatzea.

d) Gizarte Erantzukizuna: enpresaren langile, bezero, hornitzaile, herriko biztanleen onurarako eta ingurumena zaintzeko... egiten dena.

1.7. ENPRESA ETA MERKATUA

Ekonomian, **eskaintza eta eskaria** eredu ekonomiko bat da. Enpresek merkatu ezberdinetan jokatzeko dute, baina beti ere eskaintza eta eskariari aurre egin behar diete, prezio edo salneurri ezberdinetarako ondasun baten eskaintza eta eskaria berdintzen da eta horrela, oreka egoera batera heltzen da. Hau da, kontsumitzaileek salneurria onartzen dute (eskaria) eta enpresek ondasunak saltzen dituzte (eskaintza).

ESKARIA: Kontsumitzaileek, beharizanean, errentaren eta lehentasunen arabera, ondasunak eta zerbitzuak aukeratzen dituzte merkatuan.

ESKARIA BALDINTZATZEN DITUZTEN FAKTOREAK:


- PREZIOA: salneurria altua baldin bada, pentsatuko dugu eta aldiz, baxua bada, errezago erosteko.

- ERRENTA: erosteko daukagun ahalmena, irabazten dugun soldataren eta gastuen arabera, (etxea, lurrak, etab. erabiltzeagatik hilero edo urtero ordaindu behar dena), bereziki diru-kopurua.
- LEHENTASUNAK EDO GUSTUAK: Erosteke orduan gustuak, prezioa baino gehiago kontatzen du. Adb: Markako arropa edo modan dagoena erosi.

ESKAITZA: Prezio jakin baten truke merkatuko eskariari erantzuteko ezartzen diren ondasun eta zerbitzuen multzoa. Saltzaileek kontsumitzaileen beharrak asetzeko ondasun eta zerbitzu ezberdinak eskeintzen dituzte.

ESKAITZA BALDINTZATZEN DITUEN FAKTOREAK:

- ONDASUNEN PREZIOA: Prezioa zenbat eta altuagoa izan, orduan eta aukera gehiago izango du enpresak mozkinak ateratzeko.
- EKOIZPEN-KOSTUA: Produktuen ekoizpena garestituz gero, mozkinak murriztu egiten dira. Ondorioz ekoizpena eusteko, enpresek prezioak igo nahi izango dituzte.
- TEKNOLOGIA: Ekoizpenetan, teknologia erabiltzen baldin badugu, produktibitatea handituko da. Mozkinak handitzeko tresna ezin hobea da.



**** Gehiegizko eskaintza eta gehiegizko eskaria.** Eskaintza eskaria baino handiagoa denean, enpresek prezioak jeisten dituzte eta eskaria eskaintza baino handiagoa denean, prezioak igozten dituzte eta horrela, merkatuaren oreka lortzen da.

1.8 ARIKETAK

1. Adierazi zer ekoizpen-faktore diren beharrezkoak jarduera hauetarako: gozotegi bat, eskola bat, diskoteka bat eta bidaia agentzia bat.
2. Azaldu zer erlazio dagoen enpresen, familien eta sektore publikoaren artean, sistema ekonomiko batean.
3. Zein izan zen enpresaburua arriskua bere gain hartzen duen pertsona zela adierazi zuen lehen ekonomialaria? Eta enpresaburua jabea zela esaten zuena? Aizaldu ezberdintasunak.
4. Enpresa sistema irekia dela esaten da. Zer esan nahi du horrek? Eta zergatik?

BTX 2 – Enpresa _____ 1. unitatea: Enpresa eta ingurunea _____

5. Aukera ezazu ezagutzen duzun enpresa bat eta saia zaitetz ondorengo erantzuten.

- a-) Adierazi bere funtzio areak eta eskema batekin baliatuz bere heldutasun zikloa azaldu.
- b-) Ekoizpen arloari dagokionez adierazi ze desberdintasun dauden komertzio eta industri enpresa artean.

6. Demagun hurrengo adibidea: Jatetxe bateko nagusiak, jatetxe bera zuzentzen duena dela.

- a-) Adierazi, giza baliabidean dauden talde desberdinak.
- b-) Bere antolaketan, ze alderdi egon behar dira argi eta garbi ezarrita?
- c) Zein helburu mota edukiko ditu? Zehaztu bakoitzetik bi.

7. Hurrengo datuak kontutan harturik, adierazi zer enpresa lortzen duen emaitzarik hoberena errentabilitateari dagokionez eta komenta ezazu emaitza.

ENPRESAK	URTEKO MOZKINAK	ENPRESAN INBERTITUTAKO KAPITALA
Durango S.L.	20.000 Euro	200.000 Euro
Bermeo S.A.	50.000 Euro	500.000 Euro
Unai Tallerak	5.000 Euro	20.000 Euro

8. Pertsona batek 2.000 euro kostatu zizkion akzioak erosi zituen. Urte bat pasa ondoren 2.400 eurogatik saltzea lortu zuen. Zenbateko errentagarritasuna lortu zuen?

9. Irakur ezazu hurrengo esaldia eta erantzun hurrengo galderak:

“Una acción o decisión empresarial, al igual que la empresa como institución, sólo puede considerarse ética cuando encuentre el acuerdo o consenso de todos los grupos afectados por sus consecuencias. (P. Ulrich)

- a-) Zer talde desberdin egon daitezke enpresa baten? Nortzuk hartzen dituzte erabakiak?
- b-) Langileek zer interesa dituzte? Zein da euren helburua?
- c-) Bezeroek zer interesa dituzte? Zein da euren helburua?

10. Hurrengo adibidetan, topa ezazu zeintzuk diren agente ekonomikoak adibide bakoitzean eta ze merkatuan parte hartzen duten.

- a) Karmenek kotxe berri bat erosten du.
- b) Supermerkatu batek langileak kontratatzen ditu.
- c) Banketxe batek langileen nomina ordaintzen du.

BTX 2 – Enpresa _____ 1. unitatea: Enpresa eta ingurunea _____

- d) Enpresa batek irabaziak bere langilerian banatzen ditu.
- e) Jonek boluntario moduan lan egiten du GKE (Gobernuz Kanpo Erakundea) baten.

11. Ekonomiako liburu bat egiteko, adieraz ezazu ze aktibitate mota, materialak eta espezialistak parte hartzen duten. Nola lortzen da zure eskura behar den momentuan heltzea? Azal ezazu parte hartu duten sektore desberdinetako enpresak.

12. Azaldu eskaria baldintzatzen dituzten faktoreak zure hitzekin. Eta gehigizko eskaria dagoenean zer pasatzen da?

13. Taldeka (3-4 partaide) burutu unitatearen kontzeptu-mapa. Gelan aurkeztuko da.